

# AFRIKAKO IPUIN/ALEGIAK



## Adar bako beiazen umeak

OLAZAR´tar Martin´ek (†)

*Onak dira adorea ta alegina noriak sendotzeko. Amaren laguntza be bearezkoa seme-alabak aldezteko. Oneik dira Ego-Afrika´ko zulu´en alegiaren irakatsiak.*

Erriko Nagusia oso aberatsa zan, a-bere asko eukalako. Eta idi ta bei guztien artean geien maite ebana adar bageko beia zan, baiña goiz baten adar begeko beia ez zan iñon agiri.

Gabaz egin eban iges eta gabak eta egunak ibilli zan ibar oparo batera umea egiteko urreratu-arte. Eta umeak ez bat, bi izan ziran, biak gizonetzkoak eta bata neskea ta bestea mutilla. Arduraz zaindu ebazan biak. Eta ondo bizi eitezan, txalak egiten be asi zan.

Egunak aurera joiazan, ume biak azi eta azi eta sendotu egiten ziran eta berbetan be ikasi eben.

Inguruko gizon bi igaro ziran andik eta bikiak ikusita Nagusiari albiste emotea joan ziran.

Nagusia pozik bei maitea bizi zalako eta bikiak eta abere asko eukazlako. Gudariak eta artzaiñak artu eta beiazen billa joan zan etxera ekarteko.

Errira etorri ziranean Nagusiak jai aundi bat gertatu eta berba au emon eban:

-Bikiak gaztarora eltzen diranean, ankerra dan eta uretan bizi dan ixasoko mamutzarraren narruagaz egindako jantziak emongo dautsedaz!

Jazki ori oso edertzat egoan errian eta esan ezindako margoak eukazala uste eben.

Denporea aurea ta erriari aitzu egin jakon Nagusiak emondako berbea eta gaiñera urte asko peitzen ziran bikiak gaztarora eltzeko.

Eldu ziran bikiak gaztarora eta basobaltzera joan ziran agindua betetea itxaroteko. Baiña ez zan sekula beteten eta mutikoak artu eban bere arrebea eta mamutzarraren billa joan zan. Uretarik uretara ebillen eta uretza batera eltzen zanean ogi-zati bat botaten eban. Mamua agertzen ez ba´zan, ez egoan an. Aurrera. Baiña uretza baten ogia bota ebanean urak eragiña izan eta margoak artu ebazan. Antxe egoan mamua! Beste ogi bat bota eban eta dana ekaitzdun itxaso biurtu zan. Mamua asarre egoan eta zemaik egiten urreratu jaken. Mutillak itzi eban

arrebea eta uretara jauzi egin eta jo ta jo asi zan. Golpeakaz moteldu zan mamua eta azkenean ertzean il zan.

Laster kendu eutsoen narrua, egin ebezan jantzi eder batzuk eta etxerantza joan ziran.

Gabak eta egunak ibiltzen egin da, eldu ziran errira eta iñor ez ikaratzeko txabola batera sartu ziran. Buru ta guzti estaldu ziran euren jantzi barriakaz eta lo egin eben. Eguzkia agertuta be, lo egozan.

Bidelari batzuk ikusi eben narru ederrez estaldutako zerbait. Zer ete da? Il egingo doguz? Ala Nagusiarri deituko dautsagu? Eta orduantxe eldu zan adar bageko beia eta onek

estaldu ebazan gazteak morrozaka ebillala. Itxartu ziran gazteak eta aurpegia agertu ebenean, ezagutu ebezan. Asko poztu ziran guztiak eta Nagusiaren etxera eroan ebezan.

Nagusiak mamuaren milla margozko jantziz jantzita ikusi ebazanean, emondako berbea bururatu jakon. Pozik agertu ziralako, jai aundi bat gertatu eban erritar guztiai dei eginda. An agertu eban bikiak eta zelako ausartasuna euki eben: Eurak lortu eben mamuaren narru ederrezko jantziz jantziak izatea.

Arrezkero bikiak Nagusiaren etxean bizi ziran. Neskea Nagusiaren semeagaz ezkondu eta mutilla erriko nagusi izatera eldu zan.

